

# MUNDUAK GUZTIONTZAT BEHARKO LUKE

## OPORRAK BAKEAN

Galia sahararra da eta Tindufen errefuxiatuen kanpalekuetan bizi da. Euskal Herrian egon zen 2019ko udan. Pandemia tarteko, iaz ezin izan zuen etorri eta aurten ere ezingo du. Baina maiz hitz egiten du telefonoz Euskal Herriko bere familiarekin.



elkarlanean



Zer moduz?  
Itsasoa ikusi duzue  
gaur?

Bai,  
Donostiara joan gara  
dentistarenera eta itsasoa  
ikusi dugu.





Ni ere joan nintzen  
dentistarenera! Ikusi, ama,  
ikusí zein ondo zaintzen ditudan  
hortzak.

Izugarri  
guapa zaude, asko  
handitzen ari zara!



Galia zuen etxekoa  
bada, zergatik ez dago  
zuen etxean?

Eta non dago?  
Urruti ematen du...



Galiak bí familia ditu,  
bat Saharan eta bestea  
Euskal Herrian.

Galia Tindufen dagoen  
Saharako errefuxiatuen kanpalekuan  
bizi da, basamortuan.



Udan 50 gradutik gorako  
temperaturak izaten dira. Eta  
ura ere ez daukate ugari.



Basamortuak ez dauka  
denentzako elikagaiak sortzeko gaitasunik.  
Kanpoko laguntza jasotzen dute elikatzeko,  
tartean Euskal Herrikoa.



Saharako haur batzuek  
Euskal Herrian pasatzen dute uda:  
elikadura hobetu, medikuarenera joan,  
eguraldi samurragoa izan, hemengo  
famihiarekin gozatu...



Pena handia daukat aurten ere ezingo dudalako joan. Birusak dena hankaz gora jarri du.

Guk zure hutsune handia daukagu, ze ondo pasatzen dugun elkarrekin!

Tira, asko-asko zaindu, Galia. Eskuminak eman etxekoei. Asteburuan deituko dizugu berriz!

Muxuak denontzat. Eta ez egon triste, nire familiarekin eta nire herriarekin nago eta!

## OPORRAK BAKEAN

Oporrak Bakean harrera programa bat da eta bere helburua 10 eta 12 urte bitarteko haur saharar errefuxiatuak udako hilabeteak Euskal Herrian pasa ditzaten da, bai bertako familietan edo bai udalekuetan.



Programak hiru zutabe nagusi dauzka. Batetik, umeak basamortuko udako baldintza gogorretatik aldentzea –udan 50 gradu baino gehiagoko tenperaturak, hare ekaitzak...–; bigarrenik, haurren osasuna hobetzea elikadura orekatu eta osasuntsu baten bitartez eta egunean bost otordu eskainiz; hirugarrenik, oinarrizko osasun azterketak egitea eta kanpalekuetan antzematzen zailak diren gaitzak artatzea.



2020 eta 2021 urteetan programa bertan behera geratu da, osasun larrialdi egoeragatik. Kanpotik jasotzen duten laguntza blokeatuta egon da hilabete luzeetan eta joan den azaroaz geroztik gerran daude, Fronte Polisarioak hautsitzat jo baitu su-etena Marokorekin.

Telefonoak: Araba: 665 711 947

Bizkaia: 658 751 359 / Gipuzkoa: 696 014 786

oporrbakean@gmail.com /www.oporrbakean.eus